

UDALAK AUKERAGUNE IREKI DU, ADINDUEN BAKARDADEARI AURRE EGITEKO EGUNEKO ARRETAKO ETA PARTE HARTZE KOMUNITARIOKO LEHEN ZENTROA BILBON

- Juan Mari Aburto Alkatea Otxarkoaga auzoan izan da, zentroaren instalazio modernoak ikusten.
- Aukeragune 65 urte baino gehiagoko pertsona adinduentzat da, mendekotasun- eta zaugarritasun-arriskuan eta bakardade-egoeran edo -arriskuan daudenentzat.
- Proiektu berritzaile hau 80 erabiltzailerari arreta zuzeneko emateko da, eta 2.000 pertsona adindurekin baino gehiagorekin lan egiteko Otxarkoagan, Txurdinagan, Santutxun, Begoñan, Boluetan, Uribarrin eta Zurbaranen.

(*Bilbo, 2022ko ekainaren 09a*).- Bilboko Udalak gaur goizean inauguratu du AUKERAGUNE, adinduen bakardadeari aurre egiteko eta eguneko arretako eta parte hartze komunitarioko lehen zentroa Bilbon. **Juan Mari Aburto** alkatea Otxarkoaga auzoko Zizeruene kaleko 4. zenbakian dagoen baliabide berri horretara hurbildu da, nola jarduten den ezagutzearren; berarekin batera izan dira **Juan Ibarretxe eta Iñigo Zubizarreta zinegotziak eta Kontxi Claver Gizarte Ekintzako zuzendaria**, udal korporazioko beste kide batzuekin batera. Era berean, BBK Fundazioaren ordezkariak ere izan dira ikustaldian.

Proiektu berritzaile bat da, **zaugarritasun edo bakardade egoeran dauden 80 pertsonari eskain diezaioke zuzeneko arreta**, eta, halaber, asmoa da Otxarkoaga inguruko auzoetako **2.000 pertsona adindu** baino gehiagorekin lan egin ahal izatea, hala nola Txurdinaga, Santutxu, Begoña, Bolueta, Uribarri eta Zurbaran auzoak.

Ikustaldiaren ostean, alkateak aintzat hartu du udal baliabide berri honek Uriari egingo dion ekarpena, 83.000 adineko baino gehiago baitaude (65 urte baino gehiagokoak) urian, eta gizatalde horretan bakardade gura gabekoaren kasuak ager baitaitezke, *"joandako urteotan, Udalak indar handiagoa egin du uriko adinduen artean gura gabeko bakardadearen egoerak gutxitzeko ekintzak eta programak abian jartzeko. Eta zentro hau aliatu handi bat izan daiteke egoera horri aurre egiteko. Gure nahia da AUKERAGUNEn pertsonak biziarekin bat egitea ostera ere, eta gizarte harremanak izatea ostera ere. Era horretan, uriko bizimoduan parte hartzen jarraitu ahal izango dute, eta komunitatearen ongizateari laguntzen. Uste osoa dugu zaugarritasunaren prebentzioa dela pertsonen autonomia sustatzeko eta jagoteko bideetako bat"*.

ERABILTZAILERAK NORTZUK IZAN DAITEZKEEN JAKITEA

Zerbitzua erabil dezaketen pertsonak nortzuk izan daitezkeen jakiteko, **"Begirada Aktibo Berria"** udal programa eta **Gizarte Zerbitzuak** baliatzen dira. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak funtsezkoak dira programara sartu ahal izateko, eta orobat Aukeraguneren erabiltzaileen beharrezko konponbideak bilatzeko. Gizarte langile batek eta **KONEKTORE KOMUNITARIOEK** (figura berria eta aitzindaria da, **Begirada Aktibo Berria** izeneko

programaren barruan sortua) landa-lana egingo dute, zentroaren erabiltzaile izan daitezkeenak zentrori hurbilazteko, eta, han, azterketa bat egingo zaie, haiei eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik igorritakoei, proiektuak parte hartzeko egokiak direnez ikusteko.

Era berean, Udalak beste bide bat izan dezake Aukeragune zentroaren bidez, adinduak Gizarte Zerbitzuetan sar daitezzen edo harremanetan jar daitezzen, "*eta, beraz, zentro adeitsua eta erakargarria izan behar du, bizimodu aktiborako gonbita egiten duena*", zehaztu du.

Horrez gain, barrutietako elkarte-sarearen lankidetzaz ere izango du. Izan ere, Aukeragune zentroaren helburuak **lotuta daude inguruarekin**, auzoetako bizitzarekin, eta, hala, beste kolektibo eta baliabide batzuekiko harremana susta dezake, zentrotik kanpora ere jarduerak garatzeko, direla zentroarenak berarenak edo beste entitate batzuekin elkarlanean.

Proiektu hau **65 urte baino gehiagoko pertsonentzat da**, baldin eta **mendekotasun, zaurgarritasun sozial** edo **bakartze sozialeko eta/edo bakardadeko egoeran** badaude. **Erabiltzaileak, gehien batean, bakarrik bizi dira, baina badituzte laguntza formalak eta informalak beren etxean bizitzen jarraitzeko, eta badaukate gaitasuna ere zentrori beren kabuz** edo senideen edo lagunaren laguntzarekin etortzeko.

Zentroan parte hartuko duten pertsonen zer-nolakoaz, gizarte laguntzaileek adierazi dutenez, "*arazo orokorra da, zaurgarritasun sozialeko egoeran edo arriskuan dauden adinduen artean edo mendekotasun maila ertaina dutenen artean, haien ongizate biopsiko-soziala urriturik izatea prebentzio-ekintzarik ezagatik*." Hala, bada, programa honekin, Udalak lagundu egin dezake mendekotasun eta zaurgarritasun arriskuan edo I. mailako mendekotasun egoeran dauden adinduen **autonomia maila hobetzen edo iraunarazten, haien andeatzea prebenitzen eta bakardade eta bakartze egoerei aurre egiten**.

Bilboko Udalak, 65 urte baino gehiagoko bilbotarren artean bakardade egoerak urritzearen, uste du berebiziko ardura duela egoera horiek hautemateak eta erantzun koordinatu bat ematen saiatzeak, eta bakartze/bakardade egoerak saihestea eta zahartze aktibo eta osasungarri baten alde eginez esku hartzea

ASTEROKO JARDUERAK

Zentro horretan egingo diren esku hartze eta jardueren den bezainbatean, nagusiki **digitalizazioaren, funtzionaltasunaren, kulturaren, ezagumenduaren, harremanen eta emozioen** arlokoak dira.

Aste honetarako aurreikusitako jarduera-plana hiru jarduera dakartza: **BARRETERAPIA, MUGI ADIN ETA MEMENTIA**. Alkatea ikustaldia egiten izan den bitartean, zentroan zegoen adindu-taldea azken jarduera hori ari zen praktikatzen, *Mementia* izenekoak: jarduera horretan, gaitasun kognitiboak lantzen dira, eta oroimenaren errendimendua hobetzeko teknologia baliatzen dira, eguneroko bizimoduan hartutako ezagutzak eta

ohiturak transmitituz. Era berean, gaur goizean, *Barreterapian* parte hartzen izan dira, zeinaren bidez mina, estresa eta sentimendu txarrak arintzen baitira, eta, azken batean, ongizatea hobetzen.

Jarduera-programa erabiltzaileen euren eskaeraren arabera diseinatuko da, zeren eta, adierazi dutenez: *"Aukeragune zentroa irekita egongo da aldaketaren aurrean, eta jardueren programa ere aldatuko du, pertsonen eta haien beharrezanaren eboluzioaren arabera."* Hasiera batean, beharrezan, ardura eta interes horiei guztiei buruz, hauek proposatu dira: gaitze digitala, psikomotrizitatea, gorputz ariketa eta ohitura osasungarriak, kultur bisitak, euskara eskolak, oroimena lantzeko entrenamenduak, kafe-guneak (kafe bat hartuz hitzaldiak entzutea) eta mindfulness delakoa.

Udalak eta BBK Fundazioak jarraituki analizatuko dituzte esperientzia honen emaitzak, Bilborentzat erreferentzia izango den eguneko arretako eta parte hartze komunitarioko zerbitzu bat sustatzearren. BBK Fundazioa proiektu honekin lankidetzan jardun da, zentroko espazioak garatzeko eta lagatzeko eginkizunean.

INFORMAZIOA AUKERAGUNE ZENTROARENTZAT

Ordutegia:

Udako ordutegia: 8:00etatik 15:00etara

Neguko ordutegia: 8:00etatik 18:00etara

Zentroarekin harremanetan jartzeko:

Telefonoa: 94 401 69 28

Helbidea: Zizeruena kalea, 4 (Otxarkoaga)

- Baliabideak pertsona edadetu guztientzat daude irekita, baldin eta bakardade egoera batean badaude eta laguntza behar badute beren zaugarritasun soziala arintzeko eta saihesteko. Interesdunek Bilboko Udalaren Oinarriko Gizarte Zerbitzuetara jo dezakete harremanetan jartzera, edo 944 205963 / 944204804 telefonoetara deitu dezakete.

SARE SOZIALAK

- **BILBAO UDALA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)

EL AYUNTAMIENTO ABRE **AUKERAGUNE**, EL PRIMER CENTRO DE ATENCIÓN DIURNA Y PROMOCIÓN DE LA PARTICIPACIÓN COMUNITARIA PARA COMBATIR LA SOLEDAD ENTRE LAS PERSONAS MAYORES EN BILBAO

- El Alcalde Juan Mari Aburto ha visitado las modernas instalaciones del Centro situado en el barrio de Otxarkoaga.
- Aukeragune se dirige a personas mayores de 65 años que se encuentren en riesgo de dependencia y fragilidad y en situación o riesgo de soledad.
- Este proyecto innovador está diseñado para prestar atención directa a **80 personas usuarias** e intervenir con más de **2.000 mayores** de los barrios de Otxarkoaga, Txurdinaga, Santutxu, Begoña, Bolueta, Uribarri y Zurbaran.

(Bilbao, a 09 de junio de 2022).- El Ayuntamiento ha inaugurado, esta mañana, **AUKERAGUNE**, el **primer centro de atención diurna y promoción de la participación comunitaria para personas mayores en Bilbao**. El Alcalde **Juan Mari Aburto** se ha acercado hasta este nuevo recurso situado en el barrio de Otxarkoaga, Zizeruene 4, para conocer su funcionamiento, acompañado de los Concejales y la directora, de Acción Social, **Juan Ibarretxe, Iñigo Zubizarreta y Kontxi Claver**, junto a otros representantes de la Corporación Municipal. Asimismo, representantes de la Fundación BBK han asistido a la visita.

Se trata de un **proyecto innovador** que está diseñado para **prestar atención directa a 80 personas en situación de fragilidad o soledad**, y se ha previsto que se puede llegar a **intervenir con más de 2.000 personas mayores** de los barrios del entorno de Otxarkoaga, como son Txurdinaga, Santutxu, Begoña, Bolueta, Uribarri y Zurbaran.

Tras la visita, el Alcalde ha reconocido la aportación de este nuevo recurso municipal a la Villa donde residen más de 83.000 personas mayores de 65 años, colectivo donde pueden emerger casos de soledad no deseada, *“en estos últimos años, en el Ayuntamiento hemos intensificado esfuerzos en poner en marcha programas y acciones para reducir las situaciones soledad no deseada entre las personas mayores de la Villa. Y este centro puede ser un gran aliado para combatir esas circunstancias. Queremos que en AUKERAGUNE las personas reconecten con la vida y vuelvan a tejer relaciones personales. De esta manera, pueden seguir participando en la vida ciudadana y contribuyendo al bienestar de la comunidad. Estamos convencidos de que la prevención de la fragilidad es una de las vías para promover y preservar la autonomía de las personas”*.

IDENTIFICACIÓN DE LAS PERSONAS USUARIAS

La identificación de personas posibles usuarias se realiza a través del programa municipal **“Mirada Activa Berria”** y de los **Servicios Sociales**. Los Servicios Sociales de Base tienen un papel clave no solo en el acceso al programa sino en la búsqueda de

soluciones de las necesidades de estas personas usuarias de Aukeragune. Una Trabajadora Social y las **CONECTORAS Comunitarias, figura novedosa y pionera desplegada en el programa Mirada Activa Berria**, harán trabajo de campo para acercar a potenciales personas usuarias al centro que junto con las derivadas por los Servicios Sociales de Base se analizarán para ver su idoneidad para participar en el proyecto.

Asimismo, para el Ayuntamiento este Centro Aukeragune puede convertirse en otra vía de entrada y contacto de las personas mayores con los Servicios Sociales, *“por lo que debe ser un centro amable y atractivo que invite a la vida activa”*, han concretado.

Además se cuenta con la colaboración del tejido asociativo de estos Distritos. De hecho, el objetivo es que Aukeragune esté **conectado con el entorno**, con la vida de los barrios, promoviendo el contacto con otros colectivos y recursos de cara a desarrollar actividades fuera del centro, propias o en colaboración con otras entidades.

Este proyecto se dirige a **personas de más de 65 años** que se encuentren en riesgo de dependencia, **fragilidad social** o en situación de **aislamiento social y/o soledad**. Las **personas usuarias son personas que mayoritariamente viven solas aunque cuentan con apoyos formales e informales para seguir viviendo en su hogar, además deben tener la capacidad para acudir al centro de manera autónoma** o con apoyo de familiares o amigos/as.

Sobre el perfil de las personas que participarán en este Centro han explicado las trabajadoras sociales que *“el problema general de las personas mayores en riesgo y fragilidad social o con grado de dependencia moderada, es que ven disminuido su bienestar bio-psico-social por falta de acción preventiva”*. Así, con este programa el Ayuntamiento pretende contribuir en la **mejora o mantenimiento del nivel de autonomía** de las personas mayores en riesgo de dependencia y fragilidad o en situación de dependencia Grado I, **prevenir su deterioro y las situaciones de aislamiento y soledad**.

Desde el Consistorio bilbaino con el fin de **reducir situaciones de soledad entre las bilbainas y bilbainos mayores de 65 años**, consideran de vital importancia detectar esas situaciones e intentar dar una respuesta coordinada, prevenir situaciones de aislamiento/soledad e intervenir en favor de un envejecimiento activo y saludable

ACTIVIDADES SEMANALES

En cuanto a la intervención y las actividades que en este Centro se desarrollan, están vinculadas principalmente con la áreas de **digitalización, funcional, cultural, cognitiva, relacional y emocional**.

El plan de actividades previsto para esta semana se va a centrar en tres actividades: **RISOTERAPIA, MUGI ADIN y MEMENTIA**. En el momento que el Alcalde ha realizado la visita, el grupo de mayores que estaba en el centro están practicando esta última actividad, *Mementia*, donde se trabajan las capacidades cognitivas, consiste en la estimulación mediante la tecnología dirigida a mejorar los rendimientos de la memoria promoviendo la

transmisión de conocimientos y hábitos adquiridos en la vida diaria. Asimismo, esta mañana han estado participando en *Risoterapia*, que tiene como fin aliviar el dolor, el estrés y los sentimientos negativos, en definitiva, mejorar el bienestar.

El programa de actividades se irá diseñando según la demanda de las y los propios usuarios, porque, como han señalado, “*Aukeragune estará abierto al cambio, variando su programa de actividades en función de la evolución de las personas y sus necesidades*”. A priori entre las opciones que se plantean pensando en esas necesidades, inquietudes e intereses son la capacitación digital, psicomotricidad, ejercicio físico y hábitos saludables, visitas culturales, clases de euskera, entrenamiento de la memoria, charlas en torno a un café “Kafeguneak” y mindfulness.

El Ayuntamiento y Fundación BBK analizarán de manera continua los resultados de esta experiencia para concretar un servicio de atención diurna y promoción de la participación comunitaria referente para Bilbao. La Fundación BBK ha colaborado con este proyecto en el desarrollo y la cesión de los espacios del Centro.

INFORMACIÓN DEL CENTRO AUKERAGUNE

Horario:

Horario de verano: de 8 a 15 horas

Horario de invierno: de 8 a 18 horas

Contacto del centro:

Teléfono: 94 401 69 28

Dirección: c/Zizeruena, 4 (Otxarkoaga)

- Los recursos están abiertos a todas las personas mayores que presenten una situación de soledad y precisen apoyo para paliar y prevenir su fragilidad social. Aquellas personas que están interesadas en participar pueden ponerse en contacto con los [Servicios Sociales de Base](#) del Ayuntamiento de Bilbao o llamando al teléfono de 944 205963 / 944204804.

REDES SOCIALES

- **BILBAO UDALA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)